


ZALDIBIAKO UDAL KOMUNIKAZIO,
ZERBITZU ETA PARTE HARTZEKO BIDEEN INGURUKO

Inkesta

Zure iritzia behar dugu hobetzen jarraitzeko



Inkesta ON LINE erantzuteko, aukeratu hizkuntza:

EUSKARAZ, Castellano, عربي, Română, English



ZALDIBIAKO
UDALA

Kaixo, zaldibitar:

IRITZIAK JASO, HOBETZEN JARRAITZEKO. Horixe da esku artean duzun liburuxka honen lelo eta helburua.

Nola, zein bidetatik jasotzen duzu udal informazioa? Nola baloratzen duzu informazio hori? Zer botatzen duzu faltan? Udal zerbitzuak ezagutu eta erabiltzen al dituzu? Eta parte hartzeko moduak?

Badakigu denborak balio handia duela gaur egun eta zure denbora horren zati txiki bat eskatzera gatozkizu. Jarraian dituzun galderei erantzuteko tartetxo bat, dakizuna dakizula, zure iritzitik.

Inkesta hau bete ondoren, udaletxeko harrerara edo kultur etxera ekartzeko eskatzen dizugu.

Eta bestela, zuk edota ingurukoek hala nahiago bazenute, inkesta online betetzeko aukera ere badago, liburuxka honen azalean aurkituko duzuen QR kodearen bitartez edo www.zaldibia.eus webgunean.

Inkestak otsailaren 11 baino lehen jaso nahi genituzke, otsail amaierarako emaitzak plazaratzeko moduan izateko.

Jasotzen dugun guztia lagungarri izango zaigu hobetzen jarraitzeko.

Eskerrik asko aldeztu aurretik,



OHARRA: inkesta anonimoa da.
Adina eta generoa galdetuko dugu bakarrik,
inkestaren irismena baloratu ahal izateko.
Bost minutuan amaitua izango duzu. Has gaitezen!

Zehaztu zure adina:

.....

Zehaztu genero identitatea:

- ☐ Gizona
- ☐ Emakumea
- ☐ Ez bitarra

1. UDAL KOMUNIKAZIO BIDEAK

Komunikazio bide hauetako zein EZAGUTZEN eta ERABILTZEN dituzu?

	Ezagutzen dut	Ezagutu eta erabiltzen dut	Ez dut ezagutzen
BANDOAK kaleko informazio paneletan	☐	☐	☐
BANDOAK portaletan	☐	☐	☐
ITTURRITIK udal aldizkaria	☐	☐	☐
BULETINA, emailaz astero (zaldibia.org)	☐	☐	☐
Webgunea: zaldibia.eus	☐	☐	☐
Whatsapp kanala ZaldibiaINFO	☐	☐	☐
ZaldibiAPP aplikazioa ZAPP	☐	☐	☐

**Hauetakoren bat EZ DELA ERABILGARRIA uste al duzu?
(bestela segi aurrera)**

- ☐ BANDOAK kaleko informazio paneletan
- ☐ BANDOAK portaletan
- ☐ ITTURRITIK udal aldizkaria
- ☐ BULETINA, emailaz astero (zaldibia.org)
- ☐ Webgunea: zaldibia.eus
- ☐ Whatsapp kanala ZaldibiaINFO
- ☐ ZaldibiAPP aplikazioa ZAPP

Ba al dago FALTAN BOTATZEN DUZUN beste biderik?

- ☐ Ez
- ☐ Bai, Telegram kanala
- ☐ Bai, autoa megafoniarekin
- ☐ Beste bat:

.....


Zaldibiako Udalak herritarrak informatzeko BEHAR ADINA BALIABIDE jartzen dituela uste al duzu?

- ☐ Gehiegi
- ☐ Nahikoa
- ☐ Gutxi

Zer nolako INFORMAZIO MOTA baloratzen duzu gehien?

- ☐ Deialdiak: batzarrak, bilerak...
- ☐ Plenoko informazioa eta erabakiak
- ☐ Trafiko oharrak, ur mozketak, zerbitzuen ingurukoak...
- ☐ Udal zerbitzuen ingurukoak: ordutegiak, egutegiak...
- ☐ Kultur agenda, ikuskizunak, ikastaroak...
- ☐ Herriko albisteak
- ☐ Beste bat:

.....



2. UDAL ARRETA ETA ZERBITZUAK

Udal zerbitzu hauetako zeintzu EZAGUTZEN eta ERABILTZEN dituzu?

	Ezagutzen dut	Ezagutu eta erabiltzen dut	Ez dut ezagutzen
Udaletxeko harrera orokorra	☐	☐	☐
Idazkaritza	☐	☐	☐
Diru-bilketa zerbitzua	☐	☐	☐
Gizarte zerbitzuak	☐	☐	☐
Etxez-etxeko laguntza	☐	☐	☐
Berdintasuna (teknikaria)	☐	☐	☐
Hirigintza (arkitektoa)	☐	☐	☐
Kultur-kirol zerbitzuak	☐	☐	☐
Euskara zerbitzua	☐	☐	☐
Liburutegi zerbitzua	☐	☐	☐
KZ gunea	☐	☐	☐
Musika eskola	☐	☐	☐
Ur zerbitzuak	☐	☐	☐
Hondakinak kudeatzeko zerbitzua	☐	☐	☐
Hilerriko zerbitzua	☐	☐	☐
Herri baratza zerbitzua	☐	☐	☐
Bulego birtuala	☐	☐	☐

Udalak eskaintzen dituen zerbitzuez gain, baten bat FALTAN BOTATZEN al duzu?

- ☐ Bai
- ☐ Ez

Aurreko galderan baietz erantzun baduzu, zein da faltan botatzen duzuna?

Erabiltzen dituzun edo erabili izan dituzun zerbitzuekiko, zein da zure ASEBETETZE MAILA?

	Oso gustura	Nahiko gustura	Ez oso gustura
Udaletxeko harrera orokorra	☐	☐	☐
Idazkaritza	☐	☐	☐
Diru-bilketa zerbitzua	☐	☐	☐
Gizarte zerbitzuak	☐	☐	☐
Etxez-etxeko laguntza	☐	☐	☐
Berdintasuna (teknikaria)	☐	☐	☐
Hirigintza (arkitektoa)	☐	☐	☐
Kultur-kirol zerbitzuak	☐	☐	☐
Euskara zerbitzua	☐	☐	☐
Liburutegi zerbitzua	☐	☐	☐
KZ gunea	☐	☐	☐
Musika eskola	☐	☐	☐
Ur zerbitzuak	☐	☐	☐
Hondakinak kudeatzeko zerbitzua	☐	☐	☐
Hilerriko zerbitzua	☐	☐	☐
Herri baratza zerbitzua	☐	☐	☐
Bulego birtuala	☐	☐	☐

Ba al dago zure ustez zerbitzuagatik, kostuagatik... ALDAKETA edo HOBEKUNTZARIK behar duen zerbitzurik?

☐ Bai

☐ Ez

Baiezko kasuan, zein zerbitzu eta zergatik?

.....

.....

.....

ORDUTEGIA: jarraian dauden udal zerbitzuen ordutegia egokia eta nahikoa denborakoa dela uste al duzu?

Zerbitzuen ordutegia:

- Udaletxeko harrera (astelehenetik ostegunera 8:30-16:00, ostir. 8:30-15:30)
- Gizarte zerbitzuak (astelehen eta ostegunetan 9:00-13:00)
- Berdintasuna (teknikaria) (astearte eta ostegunetan 7:30-15:00)
- Hirigintza (arkitektoa) (astearte eta ostegunetan 11:00-19:00)
- Kultur-Kirol Zerbitzua (astelehenetik ostiralera 12:30-19:30)
- Liburutegi zerbitzua (astelehenetik ostiralera 15:00-19:30)
- KZ gunea (astelehenetik ostiralera 12:30-19:30)

Aurreko galderako zerbitzuen ordutegia egokia eta nahikoa denborakoa dela uste baduzu, segi aurrera. Ezezko kasuan, zein zerbitzutan aldatuko zenuke ordutegia?

.....

.....

.....

3. UDAL ANTOLAKETA eta HERRITARREN PARTE HARTZEA

Zure lanetik kanpo, PARTE HARTZEN AL DUZU aktiboki herriko talde edo kolektiboren batean?

- ☐ Bai, astean behin gutxienez
- ☐ Bai, hilean behin gutxienez
- ☐ Bai, urtean behin gutxienez
- ☐ Ez

Ezetz erantzun baduzu: lehenago talde edo kolektiboren batean parte hartutakoa al zara? Eta hala bada, zergatik utzi zenuen?

- ☐ Ez dut inoiz parte hartu, astirik ez dudalako
- ☐ Ez dut inoiz parte hartu, interesik ez dudalako
- ☐ Ez dut inoiz parte hartu, ordutegia ez delako egokia.
- ☐ Parte hartu nuen, baina astirik ez nuelako utzi nuen
- ☐ Parte hartu nuen, baina interesa galdu nuen
- ☐ Parte hartu nuen, baina ordutegia ez zen egokia
- ☐ Beste bat:
-

Zein neurritan uste duzu dela POSITIBOA udalak herritarren parte hartzea ahalbidetuko duten ekimenak sustatzea?

- ☐ Oso positiboa
- ☐ Nahiko positiboa
- ☐ Ez oso positiboa

Udalak herritarren parte hartzera bideratutako bideak EZAGUTZEN al dituzu, eta PARTE HARTU al duzu hauetan inoiz?

	Ezagutzen dut	Ezagutu eta parte hartu dut inoiz	Ez dut ezagutzen
Udal herri batzarra	☐	☐	☐
Batzordeak eta lan-arloetako bilerak	☐	☐	☐
Udal plenoak / osoko bilkurak	☐	☐	☐
Gai zehatzen inguruko bilera parte-hartzaileak	☐	☐	☐
Auzolana	☐	☐	☐

Aurreko bost bide horietako batean inoiz parte hartu baduzu, erantzun: (ezezko kasuan, nola hobetuko zenuke?)

- ☐ Funtzionamendua egokia izan da
- ☐ Funtzionamendua ez da egokia izan
- ☐ Beste bat:
-

Ez baduzu inoiz parte hartu, zergatik izan da?

- ☐ Astirik ez
- ☐ Ez zait interesatzen
- ☐ Ez naiz gai sentitzen parte hartzeko
- ☐ Badut gogoa, baina informazioa falta
- ☐ Beste bat:
-

Udalak arrazoiren bat medio (gairen batekin lotura duzulako, zozketaz...) bileraren batean parte hartzera gonbidatuko bazintu, joateko prest al zeundeke?

- ☐ Bai
- ☐ Gaiaren arabera
- ☐ Ez

Zure ustez nola bultzatu daiteke udaletik herritarren parte hartzea?

.....

.....

.....

Tarte irekia: inkestako hiru ataletakoren baten inguruan hobekuntzak, proposamenak, iritziak... zerbait gehituko zenuke?

.....

.....

.....

.....



INFORMAZIOA JASO, IRITZIA EMAN, ERABAKIA HARTU,

Parte hartu, eraiki,

ETA ZUK? NOLA, ZER, NOIZ, ZER MODUTAN, ...



Inkesta beteta udaletxeko harreran
edo kultur etxean utzi.

Paperezko inkesta gehiago
eskuragarri izango dira bertan.

Epea: otsailak 11